

EUSKAL INTELEKTUALA: KONTZEPTU HUTSA

Laguntza gutxikoa izaten da batzuetan hitz baten esanahiaren definizioaren bila hiztegiara jotzea. Hori gertatzen da ‘intelektual’ hitzaren definizioarekin ere. Ikus:

intelektual

izond. (1961). [nart.]. **1.** Ezaguerari edo adimenari dagokiona. **2. iz.** Pertsona ikasia, adimena erabili behar den jardueretan aritzen dena, burulangilea. (Ibon Sarasola, *Euskal Hiztegia*).

1. izond. Adimenari dagokiona. *Lan intelektual*. **2. iz.** Eskulaneko lanbideetan dihardutenei kontrajarririk, bereziki adimena erabili beharreko lanbideetan diharduen pertsona. (*Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*).

Definizio hauek jasotzen dute, jakina, hitzaren erabileraren zati bat, baina definizio ahulegiak dira. Zaila izango litzateke esaten, hasteko, zein den adimena erabiltzea eskatzen ez duen giza jarduera, arnasa hartu, jan eta edan, edo larrua jotzeaz gain. Zaila baita ere, beraz, adimena erabili behar den jarduera edo lanbideetan ez diharduen pertsonarik aurkitzea. Definizio hauek ez dute balio intelektualen multzoa zentzu hertsian –guri hemen dagokigun zentzuan, hain zuzen- mugatu nahi dugunean. Artistak, idazleak, politikoak, irakasleak, ikasleak, kazetariak... bai eta poliziak ere intelektualak lirateke, “burulangileak” diren heinean.

Bada hitz bat, hala ere, mugatze lan honetarako argi pixka bat ekar diezakeguna:

pentsalari

izond. (1962). Pentsatzen duena. • *iz.* Arazo orokorrez gogo ekarpenak egiten dituen pertsona. (Ibon Sarasola, *Euskal Hiztegia*).

1. izond. Pentsatzen duena; ekintzari baino gehiago pentsatzeari emana. **2. iz.** Ideien munduan diharduen eta arazo orokorrez gogo-ekarpenak egiten dituen pertsona; filosofoa. (*Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*).

Lehen adierari jarraiki, gizaki oro da pentsalari. Bigarrenaren arabera, ordea, gogo ekarpenak egiten dituenak bereizten dira eta, bereziki, filosofoak. Azken honek baidaka bai harremana pentsalariaren edo intelektualaren erro historikoekin: filosofoa izan da mendebaldeko intelektualaren prototipoa modernitatean. Ez, hala ere, edozein filosofo; arrazoiaren kritika erradikalaz garaiko botereari aurre egiteko gai izan den filosofoa, baizik.

Euskal intelektualak gaur zertan den aztertze bidean, lan honetan XX. mendeko mendebaldeko kulturaren erabilitako “intelektual” kontzeptua izango dugu hizpide. Intelektual eredu ezberdinak izan ditugu Europan eta AEBetan. Euskal Herrian gaur nagusi dena eredu horietako baten bertsio dejenatua da, gure ustez. Hobesten dugun “intelektual” kontzeptuak, aldiz, multzo hutsa baino ez du mugatzen “euskal” eransten zaionean.

1. Intelektual ereduak

1.1. Eredu britainiarra: Intelektual filosofoa¹

Bertrand Russell dugu, seguru aski, XX. mendeko britainiar intelektualik handiena. XX. mendearen hasieran Russellek logikari egindako ekarpena ezin da Frege ez den beste inorenarekin parekatu. Haatik, Russell ezin da logikako espezialista huts gisa hartu. Locke, Hume eta Russellen aita ponteko John Stuart Mill enpiristen tradizioerik onenean, formazio entziklopedikoko jakintsua da Russell. Bere garaiko filosofia eta pentsamenduaren alor gehienetan parte hartze garrantzitsua daukana. Intelektuala izateko lehen baldintza, 'pentsalari' hitzaren definizioek dioten bezala, gogo ekarpena egitea da. Baina ez nolana hiko ekarpena; ekarpenak esanguratsua izan behar du nazioarteko irizpideen arabera, idatziz edo ahozko eztabaida publikoetan adierazia. Russell intelektual filosofoaren eredutzat har dezakegu: konpetentziaz eta parte hartzeaz entziklopedista, nazioarteko oihartzun handikoa. Eta honetan guztian oinarrituta, bere gizarteko arazo sozial eta politikoetan parte hartze zuzena daukana. Botere eta alderdi nagusien jardunari aurre eginda, kartzela ere bizi izan zuen Russellek.

1.2. Eredu frantsesa: Intelektual espezialista

XX. mendeko intelektual ezagunenetako askok, ordea, ez diote Russellen ereduari jarraitzen. Har itzazue Sartre, Foucault edo Bourdieuren kasuak. Ezagutzaren arlo jakin bateko ekarpena da euren, espezializatua. Filosofian edo zientzian alor jakin batean irabazi duten errekonozimenduan oinarritzen da euren itzala. Chomsky eta Einsteinen kasuak ere honela aztertu beharrekoak ematen dute. Sekulako ekarpen iraultzailea egiten dute hizkuntzalaritza eta fisikan, hurrenez hurren. Jakintza edo zientzia alor zehatz batean egindako lanaren garrantziak 'autoritatea' ematen die espezialista ez diren alorretan ere iritzia emateko. Eta ez iritzia eman bakarrik. Ekintzan ere parte hartzen dute

1.3. Eredu alemana: Idazle filosofiazalea eta filosofo soziala

Hirugarren eredu bat ere bereiz daiteke XX. mendeko Europan: idazle intelektualarena. Literaturan egindako lanagatik eta lan horrek nazioartean ematen dien oihartzunetik haratago doa hainbat idazleek gizartean duten eragina: Thomas Mann, Gunter Grass eta Albert Camus frantsesa dira erraz gogoratzen zaizkigun hauetako batzuk. Filosofia edo zientziari ekarpen zehatzik egin gabe, eragin handia daukate euren lanen bidez mendebaldeko ideien historian. Pentsamendu autonomoaren jabe dira. Ez dira heteronomoak ez beste inorekiko ez, bereziki, fedeekiko.

Idazle filosofiazalearekin batera, filosofo sozialak osatzen du eredu alemana. Historiaz eta justiziaz kezkatzen dira, pentsamendu filosofiko alemanaren (batez ere, Kant, Hegel eta Marxen) eraginpean. Horkheimer, Adorno, Marcuse eta Habermas dira ezagunenak.

¹ Ereduon kokapen geografikoari buruzkoak ez dira zorrotzegi hartu behar. Inolako asmo deskriptibo sistematikorik gabe, ereduak kasu batzuen harira jarritakoak baino ez dira.

2. Zer da intelektualak?

Hiru eredu horien azaleko azterketa honek hiru baldintza nagusi aurkezten dizkigu, "intelektual" kontzeptuaren definiziorako:

1. Intelektualak **ekarpen esanguratsua** egiten du jakintzan: ekarpen txikiak jakintza arlo ugarietan, edo ekarpen handiak jakintza arlo espezializatuetan. Edo, idazlearen kasua, ideien munduan arituta, eragin singularra dauka ideia horien gizarteratzean.
2. Intelektualak bere ekarpenaren **errekonozimendua** dauka. Bere gizartean, hasteko, nazioartekoa, gero.
3. **Independentea** da. Arrazoiaren defentsan konprometitzen da. Bere garaiko gizartearen arazoei aurre egiten die, aurpegia ematen du, horrek maiz ordaina badakarkio ere.

Hiru ezaugarriok garbi azaltzen dira orain arte aipatu ditugun izen horien kasuan behintzat. Hirugarrenari ez dio beharrezko iritziko baten batek agian, intelektualak eta konpromisoari buruz uste duena gogoan. Pentsamendu autonomoa ez duen intelektualak, ordea, intelektual organikoa da: boterearen –edo kontraboterearen- zerbitzura lan egiten duena; arrazoiaren tokian interesa jartzen duena edo arrazoi kritikoa bazter batera uzten duena bere fedearen dogmara iristerakoan; intelektualaren bertsio dejeneratua, beraz, kasu askotan. Salbuespen bat aipatzekotan, nahitaez Gramsci aipatu behar. Bertsio dejeneratuez ari garela, postmodernitatearen ereduak ere merezi du aipamen bat.

4. Eredu espainiarra: "Komunikatzailea"

Postmodernitateak arrazoiaren aurka obratutako erasoak eta komunikabideek hartutako indarrak intelektual eredu berri bat bultzatu dute. Intelektual honek ez du ekarpen esanguratsurik ez jakintzan, ez zientzian, ez literaturan, ez ideien munduan. Baina horrek ez du inporta. Komunikabideetan behin eta berriro agertzea da kontua. Irudi bat osatzea audientzia amorfo baten aurrean. Eta horrela errekonozimendua irabazi; ez egindako lanean oinarritutako nazioarteko errekonozimendua, iritzi publikatu esaten dioten publiko difusoarena baizik. Goiko 1 (*ekarpena*) eta 3 (*independentzia*) baldintzek ez dute baliorik komunikabide intelektual-sortzaileentzat eta 2 baldintza (*errekonozimendua*) ere esparru difuso eta lokalera mugatzen dute. Horiek ez dira, beraz, intelektualak, ezta hitzaren bertsio dejeneratua ere. Duela 70 urte saiakera lantzeak egiten zuen intelektual espainiar intelektualak, Ortega edo Unamuno eredu. Gaur ezta hori ere.

5. Euskal intelektualak

Euskal komunikabideek intelektualari dagokionean ere eredu espainiarri jarraitzen diotela ez da oso ondorio harrigarria. Euskal eremuak badu, hala ere, berezitasun bat: txikia da. Gutxi gara euskaldunak, txikiak gure komunikabideak. Komunikabideok, espainiar ereduari jarraitzen badiote ere, ez dute aipatzeko moduko intelektualak sortzeko ahalmenik. Eta komunikabideek sortzen dituzten intelektualez gain zer? Bada euskaldunik jakintzari ekarpen esanguratsurik egin dionik jakintza arlo zehatzetan eta

nazioarteko errekonozimendu mugatua ere jaso duenik. Gutxi izan dira ordea pentsamendu heteronomoa izan ez dutenak: erlijioa, boterea edo kontraboterea ere arrazoi kritikoaren jomugan izan dituztenak. Inor baldin badago, gainera, isilik dago. Nik behintzat ez dut topatzen ideien munduan ekarpen esanguratsurik egin eta, Euskal Herrian eta nazioartean errekonozimendua jasota, bere gizartearen arazoan azterketarako pentsamendu autonomoak eskainitako distantzia hartzen duenik eta ekintzan hurbiletik sartzen denik. Alemaniar ereduari so eginda, errekonozitzen ditugu, antza, bost idazle euskaldun handi. Errekonozimendua jaso dute gurean. Ideien munduan egin duten ekarpena ez dut nik juzgatuko. Euren pentsamenduaren autonomia ere ez. Nazioarteko errekonozimenduari dagokionez, ordea, nabariak dira mugak. Eta mugek hortxe iraungo dutela esango nuke nik, unibertsaltasunerako bide bakarra espainiarra balitz bezala jokatzeko dugun artean.

Goiko hiru ereduak eta hiru baldintzak kontuan hartuta, garbi dago ondorioa: euskal intelektualaren kontzeptua hutsa da, oraingoz.